

GAKO EKONOMIKOAK

- Banku zentralak diote ekonomia bere horretan mantentzen dela, ziurgabetasun geopolitikoak, eta beraz, hazkunde globalaren inguruko zalantzak nagusi diren arren.
- Banku zentralak diskurtso lasaigoak eman ondoren, errenta finkoak hobera egin du oro har; beraz, bonuen errentagarritasun maila minimoetan dago.
- Euroaren balioa handitu egin da dolarraren aurrean, AEBko interes tasak murriztuko baitira agian.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Ekinean zehar, AEBen eta Txinaren arteko gerra komertzialean eta banku zentralen mezueta jarri dute arreta inbertsoreek. Hazkunde globalaren inguruan berriro ere agertu diren zalantzak direla eta, merkatuak zalantzi agertu dira, batez ere esparru geopolitikoko ziurgabetasunaren aurrean eta banku zentralen moneta malgutasuna egiteko itxaropenen aurrean. Maiatzeko beldur eta kezkek arrisku aktiboen kotizazioa nabarmen eragotzi zuten, eta beldur zein kezka horiek benetan latente jarraitzen dute. Ipar Amerikako ekonomiaren berreskurapenak -historikoki luzea baina aldi berean neurritsua izaten dena- ziklo amaiera ekartzearen beldurra dago oraindik, hain zuzen ere protekzionismoari lotutako moteltzearen ondorioz. Oro har, datu makroekonomikoak, nahiko apalak dira oraindik, bereziki Europan. Halaber, ziurgabetasun asko daude airean oraindik: Brexitaren, Europaren norabide politikoaren eta Ekialde Hurbileko tentsio geopolitikoaren ingurukoak, besteak beste. Hala ere, merkatuek bilakaera hobea izan dute, besteak beste, baldintza hauek direla eta: Txinan hazkunde bultzatzeko ezarritako neurri pizgarriak, AEBen eta Mexikoren arteko migrazio gatazkaren uestezko konponketa eta hilabete amaieran egingo den G-20 bilan tregoa komertziala ezartzeko erabakia hartzeko itxaropenak. Halaber, banku zentralak igorritako babes mezuak ere horretan nabarmen lagundu dute. Erreserba Federalak (Fed) eta EBZk deskribatutako testuinguru ekonomikoa nahiko positiboa izan arren, arriskuek gora egin dutenez -batez ere tentsio komertzialekin zerikusia dutenak- moneta politika moldakorrangoaren aldeko hautua egin dute banku zentralak. Alde batetik, Draghik adierazi zuen, arriskuen mapan hobekuntzarik antzematen ez bada, moneta pizgarri gehiago eskainiko dituela EBZak. Zehaztutako neurrien artean daude hauek: interes tasak murriztea eta aktiboen erosketa berriei ekitea berriro ere. Bestalde, interes tasak aldatu ez arren, Fedek aldaketa handi bat egin du bere jakinarazpenean: «lasai» egoteko deia ezabatu du, eta horrez gain, ekonomiaren inguruko arriskuen jarraipena egingo duela eta zabalpenari eusteko beharrezko jarduketak egingo dituela aipatu du. Hilabete amaieran, finantza merkatuek adierazi dute % 100eko aukera dagoela Fedek, uztaileko bere bilkuran, interes tasak murrizteko.

ERRENTA ALDAKORRA

Hilabete honetan, igoerak izan dira nagusi munduko burtsa garrantzitsuenetan. Banku zentralak jarrera moldakorrangoa hartu dute, G-20 bilkuran Trumpen eta Xiren arteko bilkuraren zain daudela. Mundu mailako errenta aldakorreko merkatuek gogo handiz hartu dute banku zentralen jarrera hori, AEBko burtsak maximo berrietara ere iritsi direlarik. Europan ere itxiera positiboak egon dira, igoerak AEBkoak baino apalagoak izan diren arren (Eurostoxx50 indizeak % 5,89 egin du gora). Aipagarria da Ibex35 indizea, hilean % 2,16ko aurrerapena izan baitu, eta aurten % 7,72 berreskuratu baitu bere balioa. Gainerako indizeak askoz ere atzerago geratu dira, interes tasa apalen testuinguruan, banku sektoreak balioespen apala egin baitu batez ere.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2019ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.198,8	EUR	%7,72
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.473,69	EUR	%15,73
S&P-500	AEB	2.941,76	USD	%17,35
DOW JONES	AEB	26.599,96	USD	%14,03
NASDAQ 100	AEB	7.671,07	USD	%21,19
NIKKEI-225	JAPONIA	21.275,92	JPY	%6,30
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.054,86	USD	%9,22
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.178,347	EUR	%15,63

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Errenta finkoan, moneta pizgarriak ezartzeko itxaropenen ondorioz, zor subiranoaren interes tasen murrizketa are gehiago indartu da Atlantikoaren bi aldetan. Hala, Alemaniako hamar urterako zorraren interes tasak - % 0,30eko muga gainditu du, eta AEBko zorraren interes tasa % 2ra murriztu da berriro ere, duela hilabete batzuk muga hori erabat gaindituta zegoela zirudien arren. Ildo berean, Europako periferian ere arrisku primak eta bonu enpresarialen diferentzialak murriztu dira.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2019ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,35	-0,04
	6 HIL.	-0,31	-0,07
	12 HIL.	-0,21	-0,10
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,75	-0,14
	5 URTE	-0,66	-0,35
	10 URTE	-0,33	-0,57
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,43	-0,18
	5 URTE	-0,16	-0,50
	10 URTE	0,40	-1,02

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Dolarraren balioa murriztu egin da euroaren aurrean, AEBko interes tasak murriztuko baitira agian. Beste alde batetik, AEBen eta Iranen arteko tentsioak gora egin duenez, Brent upelaren prezioak gora egin du: ia 65 dolarretan dago.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg